

ADMINISTRATIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; **OBRAK LEHIAKETA MUGATU** BIDEZ
KONTRATATZEA

Gaia: Lartzabal Etxadiako urbanizazio proiektuan sartutako obrak.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia hau da: **Lartzabal Etxadiako urbanizazio proiektuan sartutako obrak egikaritzea**. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientearen azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 45000000.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: 8 hilabete. Lehiatzaileek epe hori hobetu dezakete.

Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 1.359.405,32 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioaren oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5. NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek. Ordainketak Sektore Publikoko Legearen 200 eta 215 artikuluetan eta Herri-Administrazioen Kontratazioaren Araudi Orokorren 147. eta hurrengo artikuluetan ezartzen den bezala egingo dira.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko Bermea. - Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lizitazio honetan parte hartzeko; berme hori kontratuaren prezioaren %3 izango da, beraz, 35.157,03 €, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 91.3. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez jarriko dute.

Esku-dirutan ordaindu nahi izanez gero, Kutxako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da.

Behin-behineko bermea behin betiko esleipena egin eta gero itzuliko da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

b) Behin betiko Bermea. - Kontratuaren behin-behineko esleipendunak behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe. SPKLren 84.1. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez jarriko da.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke (esku- dirutan egiten bada a) atalean zehaztutako kontu zenbakian egingo da).

Behin betiko bermearen bitartez honako alderdi hauek ziurtatuko dira: kontratuan jasotzen diren eginkizunak egoki egitea; Administrazioari sortutako kalteak, kontratistak bere betebeharrak berandu

betetzeagatik; kontratua egikaritzean Administrazioari eragindako kalteak, edo kontratua ez betetzeagatik eragindako gastuak, kontratua etetea egoki ez denean; kontratistari ezarritako zigorrak; kontratua eteten denena agindu daitekeen konfiskatzea.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada gorago zehaztutako kasuetarako, bermea berehala osatu edo jarri behar da berriro, eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean, hurrengo ziurtapena egiten denean kendu egingo da dagokion kopurua.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hori hilabete bateko epean izan beharko da, kontratua sinatu den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean

dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu, kontratatari entzunaldia eman eta gero. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleipendunaren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, urte 1eko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleipendunaren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

Kontratistak kontratua egikaritzean ez baditu aipatutako profesionalak edo agindutako bitarteko materialak atxikitzen, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratuaren aurrekontuaren %10a arte.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena bi alditan eta lehiaketa mugatu bidez egingo da:

A) Lehenengo aldian, 18. baldintzako h) puntuan xedatzen diren kaudimen-irizpide objektiboen arabera hautagaiak aukeratuko dira, hautagai horiek parte hartzeko eskabidea egin eta gero.

Horren arabera, kaudimen baldintzak, hau da, eskatutako klasifikazioa betetzen dituzten 5 enpresa izango dira gonbidatuak lizitazioan parte hartzeko. Kaudimena egiaztatzeko eskatzen den klasifikazioa 5 enpresek baino gehiagok ziurtatzen badute, gonbidatuak izango direnen hautaketa gaitasun tekniko, material eta humanoa kaudimena ziurtatzeko eskatutako maila baino altuagoan egiaztatzen duten enpresen alde egingo da, erabaki arrazoitu bidez (18. klausulako i) atala).

B) Bigarren aldia, eskaintzak hautatu eta kontratuaren esleipena egingo da. Horretarako, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat, garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta:

1. Proposamen ekonomikoa .- Irizpide honegatik 50 PUNTU emango dira gehienez ere. Puntu 1 emango da lizitazio prezioetik jaisten den 4.350 €ko.
2. Obraren azterketa maila .- Irizpide honengatik 35 PUNTU emango dira gehienez ere. Orubeari, irisgarritasunari, inguruaren bideragarritasunarekiko eraginei, hartune eta azpiegiturei, etxolen kokapenari, hurrengo urbanizazioekiko koordinazioari eta bestelako alderdiei buruzko estudioa aztertuko da, obraren estudioarentzat onuragarriak badira.
3. Egikaritze-epea .- Irizpide honengatik 5 PUNTU emango dira gehienez ere. Gehienezko puntuazio epe laburrena aurkezten duen proposamenari emango zaio; 0 puntu lortuko ditu epea murrizten ez duen proposamenak; eta gainontzeko proposamenak aurrekoekin heinekotasunean puntuatuko dira.
4. Hobekuntzak .- Irizpide honengatik 6 PUNTU emango dira gehienez ere. Puntuak emateko ingurumenari, materialen kalitateari, izaera sozialari edo bestelakoei dagokienez onuragarriak diren proposamenak.
5. Ingurumen jarduketarako neurriak .- Irizpide honengatik 4 PUNTU emango dira, gehienez ere. 2 puntu emango dira ISO , IDI edo antzeko ziurtagiri bakoitzeko.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18.h) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean azertu ahal izango da:

LEKUA: Oiertzungo Udalean, Done Eztebe Plaza 1., 20180 Oiartzun.

ORDUAK: 08 : 00 - 14 : 00

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Eskabideak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 10 eguneko epean, iragarki hori argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.oiartzun.org.

SPKLaren Hemezortzigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoaren arabera, parte-hartzeko eskaerak telefonoz ere egin daitezke, eta hala egiten duen eskatzaileak idatziz berretsi beharko du eskaera, gorago aipatu den eskaerak jasotzeko epea iraungi aurretik.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren eskabideak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, eskabidea onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, eskabidea bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organismoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Jardunbidearen lehen aldian parte hartzeko, lehiatzaileek kartazal bat aurkeztu beharko dute itxita. Kartazalean testu hau idatziko da: " LARTZABAL ETXADIAKO URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN KONTRATAZIOAN LEHIAKETA MUGATU BIDEZ PARTE HARTZEKO ESKABIDEA".

Kartazalean enpresaren izena eta parte hartzeko eskabidearen izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Kartazalak ere izenpetuta egon beharko du.

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Honako eredu honen arabera

ESKABIDEA

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako lehiaketa mugatuaren berri izan dudala,

ESKATZEN DUT:

Lehiaketan parte hartzeko onartua izatea eskaintza aurkezteko bide emanaz, lehenengo aldirako eskatzen diren baldintza berezien arabera; agiri bidez frogatzen dut baldintza horiek betetzen ditudala.

....., 20...(e)koaren(a)

Izenpea

b) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

c) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

d) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeke konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokoen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala ziurtatzeko eta beren proposamena aurkeztera gonbidatuak izan ahal izateko, ezinbestekoa izango da kontratistarentzat hurrengo Talde, Azpitalde eta Kategorietan klasifikazioa izatea:

A Taldea	01 Azpitaldea	C Kategoría
E Taldea	01 Azpitaldea	E Kategoría
G Taldea	03 Azpitaldea 04 Azpitaldea 05 Azpitaldea	E Kategoría E Kategoría B Kategoría
I Taldea	01 Azpitaldea	E Kategoría
K Taldea	06 Azpitaldea	D Kategoría

i) Obrara bideratuko diren giza-baliabideen eta makinariaren egiaztagiriak, eta kaudimena egiaztatze eskatu zaiena baino maila altuagoko gaitasun teknikoa, materiala eta pertsonala baloratzeko egoki iruditzen den edozein informazio.

j) Erantzukizun Zibilaren poliza sinatua duela egiaztatu behar du, honen antzeko gutxienez 600.000 euroko obretarako.

Goiko b), c) eta h) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzaileen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19. AGIRIAK SAILKATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du Kontratazio Mahaiak. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Illo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki ohelean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen

badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Gero, eskatzaileen nortasuna egiaztatu eta kaudimena¹⁶ baldintzaren A) atalean adierazten diren irizpideen arabera berretsi eta hurrengo fasera pasako direnak hautatuko ditu Kontratazio Mahaiak, eta proposamenak aurkezteko gonbita bidaliko zaie. Bertan adieraziko da proposamenak aurkezteko epea.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Aukeratutako hautagaiek 3 kartazal aurkeztu beharko dituzte. Kartazaletan honako hau idatziko da: "LARTZABAL ETXADIAKO URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA MUGATUAREN BIGARREN ALDIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA", eta korrelatiboki emango zaie zenbakia.

Kartazaletan enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Kartazala ere izenpetuta egongo da.

1) LEHENENGO KARTAZALA (DOKUMENTAZIOA ADMINISTRATIBOA).-

a) Enpresariak aldirako batasunean elkarturik aurkeztuko badira, esleipendunak izatekotan batasuna eratuko duten konpromisoa jaso beharko duen dokumentua, zein pribatua izan daitekeen eta enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du. Bertan, Administrazioarekiko harremanetarako AEBaren ordezkaria izendatu beharko dute.

b) Behin-behineko ordaina edo ordaindu izanaren ziurtagiria.

2) BIGARREN KARTAZALA (PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK).- Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Honako eredu honen arabera

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako lehiaketa mugatuan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea

b) Agiri honen 16. baldintzaren B) atalean zehaztutako esleipen-irizpideetatik formula baten bidez baloratu behar direnak egiaztatzen dituztenak.

3) HIRUGARREN KARTAZALA (BLORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK).-
16. baldintzaren B) atalean zehaztutako esleipen-irizpideetatik balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak.; hain zuzen ere, Obraren Azterketa Maila eta Hobekuntzak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

21. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Aurkeztutako proposamenak irekitzeko Kontratazio Mahaiak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 83. artikuluan eta hurrengoetan eta 30/2007 Legea partzialki

garatzen duen 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Kontratazio Mahaiak 1. kartazalean aurkeztutako dokumentazioan aztertu eta, behar denean, horiek 3 egun balioduneko epean zuzendu eta gero, lizitazioan onartzen dituen enpresak eta onartzen ez dituenak adieraziko ditu.

Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideen balioestea balorazio irizpide baten gai izan behar dutenena eta gero egingo da, eta hori dela eta, Mahaiak automatikoki kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideei buruzko 3. Kartazala (BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK) jendaurrean irekiko du, 1. kartazala ireki eta hurrengo zazpi egunetan. Horretarako lekua, eguna eta ordua kontratatzailearen profilean agertuko dira. Ondoren, aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoei emango zaie dagokion balorazioa egin dezaten

Aurrekoa egin eta gero, proposamenen 2. kartazala (PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK) irekiko du Mahaiak, kontratatzailearen profilean argitaratuko den leku, egun eta orduan. Egintza horretan emango da jakitera balorazio iritzi baten gai izan diren irizpideen balioestea.

Hurrengo egunetan, teknikariek proposamenak balioetsi, ebaluatu eta sailkatzeari ekingo diote, eta Kontratazio Mahaiari txostena emango diote esleipen-proposamena aurkeztuko diezaion esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio Kontratazio Organoak behin-behineko esleipena.

Behin-behineko esleipena 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta egutegiko hamabost eguneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko esleipendunak:

- a) egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin betiko bermea jarri.

Behin-behineko esleipena behin betiko egin beharko da hilabeteko hamar eguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontaktzen hasita, baldin eta esleipendunak a) eta b)

puntuetan adierazitakoak betetzen baditu. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia eginez eta behar bezala ziurtatuz.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- b) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Oiartzunen, 2010eko apirilaren 21ean.